

Frantziak mugako kontrolekin jarraituko du, auto-ilarak izan arren

Horretarako Frantziako gobernuak Biriatuko ordainlekua erabiltzen jarraituko du



Frantziako gobernuak Biriatuko ordainlekua erabiltzen jarraituko du mugan kontrolak egiteko, auto-ilarak izan arren, batez ere opor garaietako itzulera-operazioetan. Bidegi foru agentziak eta ASFk aste honetan egin duten bileran, A-63 errepidearen emakidadunak baieztatu du ez dela aldaketarik aurreikusten etorkizun hurbilean, eta Frantziak bi estatuen arteko muga erabiltzen jarraituko duela pertsonak eta salgaiak kontrolatzeko. Horren erakusgarri da Frantziako gobernuak Europari egindako eskaera, Schengengo akordiotik beste sei hilabetez salbuesteko eskatuz, segurtasun nazionalagatik.

A-63 errepideko emakidadunak bere egonezina agertu du, askotan, mugaren Gipuzkoako aldea kolapsatzen duten auto-ilarengatik, baina Frantziako poliziaren agindupean dagoenez, zirkulaziorako irekita dauden kabinen kopurua murriztera behartuta dago: erabilgarri dauden 10 bideetatik bost edo sei bide daude, horietako bat Hendaiatik sartzeko bakarrik, eta bi edo hiru kamioietarako dira.

Bidegi eta ASFk egindako bileran azaldu duenez, auto-ilara horiek saihesteko gaitasuna izan arren, Frantziako poliziaren aginduak bete behar dituzte, eta bide kopurua murrizteaz gain, hesien igoera moteldu dute.

Bi agentziak hiru hilean behin bilerak egiten hasiko dira informazioa trukatzeko eta, ahal den neurrian, mugaren lotura hobetzeko.

Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako diputatuak eskatu dio Espainiako gobernuari beharrezko neurriak har ditzala mugan ordena berrezartzeko. “Biriatuko auto-ilararena arazo errepikakorra da; izan ere, Frantziako poliziak egiten dituen kontrolengatik, edo kamioiak pilotzeagatik, Frantzian ibilgailu astunentzako trafikoa murriztuta egon ondoren, kilometro-ilarak sortzen dira, eta Bidasoaldeko eta Donostialdeko ingurunea erabat kolapsatzen dute. Auto-ilara horiek behin eta berriz gertatzen dira Gipuzkoako aldean, gidarien eta garraioko profesionalen nerbioak proban jarrit. Ez da gaurko arazoa, ezta egun batekoa ere, urte asko daramatzagu horrela, administrazioak konpondu gabe”.

Egoera horren aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak berriro esan du ez dagoela bere esku irtenbide bat ematea Frantziako Gobernuak aurrez pentsatuta sortutako egoera bati. “Ezin dugu eraginik izan mugako auto-ilaretan, eta, beraz, hesiak igotzea ez da soluzioa”.

Francia seguirá con los controles en la frontera a pesar de las retenciones

Para ello el gobierno francés seguirá utilizando el peaje de Bariatou



El gobierno francés seguirá utilizando el peaje de Bariatou para realizar controles en la frontera a pesar de las retenciones que se producen, sobre todo en las operaciones retorno de las épocas vacacionales. En la reunión celebrada esta semana entre la agencia foral Bidegi y ASF, la concesionaria de la A-63 ha confirmado que no se prevén cambios en un futuro cercano, y que Francia seguirá utilizando la frontera entre los dos estados para controlar personas y mercancías. Muestra de ello es la petición realizada por el gobierno francés a Europa pidiendo la exención del acuerdo de Schengen por otros seis meses, por seguridad nacional.

La concesionaria de la A-63 ha mostrado su malestar ante las retenciones que colapsan, a menudo, la parte guipuzcoana de la muga, pero al estar sujeta a las órdenes de la policía francesa, está obligada a reducir la cantidad de cabinas abiertas al tráfico: de las 10 vías disponibles se habilitan cinco o seis vías, de las cuales una es exclusiva para las incorporaciones desde Hendaia y dos o tres están destinadas a los camiones.

En la reunión mantenida entre Bidegi y ASF, esta última ha explicado que, a pesar de tener capacidad para evitar esas retenciones, están obligados a seguir las órdenes de la policía francesa, y además de reducir el número de vías han ralentizado la subida de barreras.

Las dos partes, Bidegi y ASF, se han comprometido a realizar reuniones cada tres meses para intercambiar información y mejorar, en la medida de lo posible, la conexión de la frontera.

La diputada de Infraestructuras Viarias, Aintzane Oiarbide, insta al gobierno español a que tome las medidas necesarias para restablecer el orden en la frontera. “Las retenciones en Bariatou son un problema recurrente, ya que bien por los controles que realiza la policía gala, bien a consecuencia de la acumulación de camiones después de un periodo de restricción de tráfico para vehículos pesados en Francia, se producen retenciones kilométricas que colapsan totalmente el entorno de Bidasoaldea y Donostialdea. Una y otra vez estas retenciones se producen en el lado guipuzcoano, poniendo a prueba los nervios de los conductores y de los profesionales del transporte. No es un problema de hoy ni de un día, sino que llevamos así muchos años, sin que la administración lo resuelva”.

Ante esta situación, la Diputación de Gipuzkoa vuelve a reiterar que “de ninguna de las maneras, está en su mano dar una solución a una situación creada, con



premeditación, por el Gobierno francés. “No podemos influir en las retenciones de la frontera, por lo que la subida de las barreras no es una opción”.

Zarautz, 2022/10/29